

Ebazpena: R 4/2023

Espedientea: 29/2015

Vitoria-Gasteizen, 2023ko urtarrilaren 27an.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordea honakoek osatzen dute: Violeta Ruiz Almendral presidenteak, eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese batzordekideek. Eta honakoa erabaki dute:

ERABAKIA

Zerga Administrazioako Estatu Agentziak (aurrerantzean, ZAEAk) Gipuzkoako Foru Aldundiaren (aurrerantzean, GFA) aurka planteatutako gatazkari buruzkoa, zeinaren helburua baita PPIPSL sozietatea nagusi den 09-0006 IVA taldearen tributazio-proporzioa zehaztea 2009tik 2012ko maiatzera arteko aldiari. Hala, Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da, 29/2015 espediente-zenbakiarekin.

I. AURREKARIAK

1.- PPIPSL sozietatea nagusi den merkataritza-taldeak galdaketa-piezak fabrikatzen eta saltzen ditu.

Fabrikaziorako bi sozietate nagusi ditu, galdaketara bideratuak (horietako bat Gipuzkoan eta bestea Araban), eta 2012tik aurrera, zatiketa partzial baten ondorioz, mekanizaziora bideratutako beste bi sozietate nagusi ere baditu (hau

da, ondorengo tratamendura bideratuta daude, hala badagokio, galdaketa-piezei aplikatzen zaiena).

Merkaturatzeko, WECSL du mendean. Horrek aldaketa-piezak mekanizatu eta saltzen ditu (Arabian edo Gipuzkoan), edo, hala badagokio, metalizazioaz arduratzen da (hala badagokio, Nafarroan egiten den kanpo-prozesua).

Guztiek Gipuzkoan dute zerga-egoitza.

2.- 09-0006 IVA taldea, GFaren ikuskapen-eskumenekoa (Ekonomia Itunaren 29.Zazpi artikuluan xedatutakoaren arabera), PPIPSLk eta mendekoek osatzen dute, 2012az geroztik Arabian ekoizten duen galdategiak izan ezik (kanpoan geratzen da 7.000.000 euroko eragiketa-bolumena gainditu duelako eta jarduera osoa Arabian egiten duelako).

3.- 09-0006 taldeak 2009tik 2012ko maiatzera arteko autolikidazioak aurkeztu zituen, eta eragiketa-bolumenaren % 100 Gipuzkoan gauzatu zuela adierazi zuen.

4.- GFAk 2012ko uztailaren 17an hasi zuen akta bakarra, eta WECSLren eragiketa-bolumenaren proportzioa aldatu zuen, metalizazio-prozesu baten xede diren piezen salmentak Nafarroan kokatzen direla ulertuta, bezeroarentzako garraioa bertan hasten delako.

5.- Akta hori akta bakar gisa izapidetu zen, eta GFAk bere gain hartu zuen ordainarazpen-eskumena zuten administrazio guztiei zegokien itzulketa. Ondorioz, Nafarroako Zerga Ogasunak (aurrerantzean, NZO) bere tributazio-proportzioari zegokion zenbatekoa transferitu behar izan zion.

Akta bakar hori 2015eko otsailaren 16an jakinarazi zitzaion ZAEari.

6.- 2015eko apirilaren 14an, ZAEAk inhibizioa eskatu zion GFARI, hari egozten zaion tributazio-proporzioari dagokionez.

7.- 2015eko ekainaren 9an, GFAk inhibizio-errekerimenduari erantzun zion, eta bere eskumena berretsi zuen. Horren aurrean, ZAEAk gatazka aurkeztu zuen 2015eko ekainaren 10ean Arbitraje Batzordean, 29/2015 espediente-zenbakiarekin izapidetua.

Aktaren ondorioz, PIPSL 2012ko uztailetik hasi zen aitorpenak aurkezten NZOri, egindako eragiketa-bolumenaren proportzioan.

8.- Espedientea prozedura arruntaren bidez izapidetu da, eta hasierako alegazioen izapidea eman zaio NZOri, eta amaierako alegazioen izapidea, berriz, alderdi guztiei, hilabete batez.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena

Arbitraje Batzordeak du eskumena, Ekonomia Itunaren 66.Bat artikuluan adierazitakoan oinarrituta, Arbitraje Batzordearen funtzioak ezartzen baititu:

a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkak ebaztea, bai tributu itunduen lotuneen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, sozietateen gaineko zergaren edota balio erantsiaren gaineko zergaren baterako tributazioaren kasuetan.

b) Banakako tributu-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkak erabakitzea.

c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea.

Horren arabera, bidezkoa da ebazpena ematea GFAk hasitako akta bakarretan erregularizatutako eragiketa-bolumenaren proportzioari buruz; izan ere, horien arabera egozten da Estatuaren tributazio-proportzioa.

2.- Aurrekariak

Arbitraje Batzordeak 11/2013 gatazka ebatzi du; zehazki, zerga-kontzeptu eta aldi berari buruzkoa da, eta, beraz, obligaziodunaren adierazpenei eta GFAk eta NZOk emandako argudioei buruzko aurrekariak erreproduzitzen dira.

3.- Galdaketa-piezen metalizazioa

Galdaketa bidez egiten diren produktuak galdatutako materiala molde batean isurtzearen emaitza dira. Molde hori lortu nahi den azken piezaren erreprodukzio negatibo zehatza da. Moldea fabrikatzeko modelo bat behar da, hau da, piezaren erreprodukzio positibo berdina.

Metalizazio-prozesua pieza baten gainazala material metaliko edo zeramiko batez estaltzean datza. Material hori haren gainean uzten da, urtua edo erdi urtua. Estaldura metalizatuak gastatutako zatiak konpontzeko, gaizki makinatutako osagaiak salbatzeko edo jatorrizko ekipamenduaren gainazalari propietate bereziak emateko erabiltzen dira; mekanizatuen beste erabilera batzuk dira, halaber, higadurarekiko erresistentzia hobetzea, beroarekiko edo

korrosioarekiko erresistentzia handitzea, gainazalen akabera, labaingarritasuna areagotzea, eroankortasun termikoa edo elektrikoa hobetzea, eta dekorazio-estaldurak sortzea.

4.- Merkaturatze-lanari buruz

BEZaren subjektu pasiboa taldea da, eta ez taldea osatzen duten sozietate nagusia eta haren mende daudenak.

Probaren balorazio objektiboa eginez gero, ondoriozta daiteke WECSLk ez duela merkaturatze-jarduerarik egiten, ez duelako horretarako giza baliabiderik eta baliabide materialik, eta ez duelako inolako prestaziorik edo komisiorik kobratzen jarduera horrengatik.

Badirudi hori bat datorrela 2012an obligaziodunak NZOri egindako adierazpenekin (11/2013 gatazkaren espedientean). Gainera, horiei sinesgarritasun handiagoa eman dakieke 2013ko apirilaren 19an GFARI egindako adierazpenei baino. Izan ere, adierazpen horiek 2009tik 2012ko maiatzera arteko aldia erregularizatzen duen aurretiazko aktaren eta inhibizio-errekerimenduaren ostekoak dira; azken horren berrespenean ondorengo gatazka-planteamendua formulatzen da, eta 2012ko ekaina-abendua aldiak erregularizatzen dituen bigarren akta bakarra baino hamar egun lehenagokoa baino ez da.

Hala ere, argi dago IVA taldeko (subjektu pasiboa) norbaitek merkaturatze-lana egiten duela eta horri dagokion balio erantsia sortzen duela. Orduan, galdategiek egingo lukete merkaturatze-lan hori, eta, beraz, eragiketen kokapena zehazten duen lotura-puntura jo beharko litzateke, Ekonomia Itunaren 28. artikulura, alegia.

5.- Eragiketen kokalekua

Arbitraje Batzordea iritziak emateko aukera izan zuen Ekonomia Itunaren eragiketak kokatzeko arauak interpretatzeko irizpideei buruz, 7/2021 Ebazpenean, 16/2022 Ebazpenean osatutakoan, eta, beraz, azaldutakotzat jotzen dira dagozkion ondoreetarako.

Auzitegi Gorenak aukera izan zuen 2323/2011 Epaian (ECLI:ES:TS:2011:2323) —ROVER Epaia gisa ezagunagoa—, honako hau adierazteko: garraioa hasten den lekua eten bat da arau orokorrean, eta zerga aplikatzen den lurraldetik kanpo hasten edo amaitzen diren garraioei soilik aplikatzen zaie.

Fabrikazioaren eta merkaturatzearen balio erantsia Euskal Autonomia Erkidegoan sortzen da, taldeak bertan baititu jarduera horietan balio erantsia sortzeko erabiltzen diren elementu material eta giza elementu guztiak.

Nolanahi ere, adierazi behar da eragiketen kokapenari buruzko ondorio bera lortuko litzatekeela merkaturatze-lanak WECSLk egin zituela onartuta ere.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak hau

ERABAKI DU

1.- Adieraztea 09-0006 IVA taldeak fabrikatutako galdaketa-piezak merkaturatzeko lana ez dela lurralde erkidean kokatzen, eta, beraz, Estatuari ez dagokiola eragiketa-bolumenaren proportzioa 2009tik 2012ko maiatzera arteko ekitaldietan.

2.- Erabaki hau jakinaraztea Zerga Administrazioako Estatu Agentziari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta PIPSLri, 09-0006 IVA taldeko sozietate nagusia denez.